

# HONDARRIBIKO EUSKAL HERRIAN EUSKARARAZI KONTSEILUA

Aldizkari honen 77. zenbakian azaldu zenuten "Akabo Fuenterrabia" artikuluan aipatzen ninduzuten izen jatorrak berreskuratzeko ahaleginetan aritu naizelako eta bereziki hiri honen izen jatorrez. Artikulu horrek bide ematen dit zenbait iritzi kontseilu gisa adierazteko. Zuen esku, onar ala ez.

Aldez aurretik esan beharrean naiz, asmorik onenak ere ez direla aski gizatiar eran betetzen ez baldin badira. Hau da, Fuenterrabia, Erdi Aroan gaskoinak hasi ziren oker erabiltzen, alde batetik gure h arnaskaria ezin ahoskatuz eta izenaren esanahia ulerkaitz zitzaielako. Baina mende askotan erabiliak, onerako edo txarrerako, bere bidea egin du eta, holakotan, nekeza da bat-batean era jatorra bideratzea. Era jatorrera itzultzeak denbora eskatzen bait du eta, nire irudiz, seinalez iragarkietan jartzeko biderik egokiena iruditzen zait: **Hondarribia/Fuenterrabia** erabiltzea. Eta ez **Fuenterrabia** borratzea.

Oroi bideetako iragarkiak ez direla euskaldunontzat bakarrik eta datorrenik gehiengoak, edonondik datozelarik, zoritxarrez jatorra ez dena soilik ezagutzen duela, baina aldi berean ez direla historian gertatu denaren errudun. Hiria aurkitu nahi dute, besterik ez. Horregaitik ez zait iruditzen, bat batean derrigorturik, **Hondarribia** erabiltzea soilik. Horrek denbora eskatzen bait du. Nire kontseilua litzake, zenbait urtez behinik-pehin, era jatorra aurretik erabiliaz jarraitzea, denboraren baitan utziz era jatorraren bideratzea.

Bideetako iragarkiak norabidea adierazteko besterik ez dira. Ondo da euskaraz ere jar dezaten eskatzea, baina ez erdera hutsean daudenak kentzea. **Francia** borratu eta hor ikusten ditut zenbat kamioilari noraezean galdezka. **Aeropuerto/aireportu** sustr berekoak izanagatik ere, errespetatu nahi ez eta abar.

Oroi hizkuntza gutitua garena, bigarren edo hirugarren hizkuntza hedatuagoak ez digula kalterik egiten eta hizkuntzen borrokan sartzen bagara, txikiak zer galdurik gehiago duela. Beraz, on beharrez kalte ginezake.

Bestalde orain modan jarri zaigu elkarte, denda, jatetxe eta abar euskaraz jartzea eta on zaigu. Baina otoi, hor bai dela zuzenketa egin beharreko lana. Bada Hondarribian Arraun Elkartea, euskaraz zentzurik ez duena. Behar bada erdarazko "Club de Rema"ren ideatik errepikatuz hartu dena. Baina arraunak berez ez dute zutzurik eta ezinezko zaie elkartzea, bai ordea arraunlariei. Zergatik ez zioten jarri "Arraunlari Elkartea"?

Bada "Arma Enparantza" erabiltzen duenik ere, "Arma Plaza" erabili beharrez. Zeren alde batetik plaza eta enparantza ez dira gauza bera eta biak latinetikakoak izanarren, lehenengoa da

antzinagokoa. Plaza bazterte hori ezjakintasunaren ondorioa baizik ez da. "Egan" aldizkarian eman nituen aspaldi horren argitasunak.

Txingudi da gure egunotan aintzinatiko Bidasoaren lekua hartzen ari dena eta badirudi inor ez dela ohartzen horrek ze kalte dakarren arkeologia, historia, literatura ikerketei eta aldi berean euskarari ere. Txingudi, Bidasoaren bazter batean Hendaiatik Sokaburura bitartean erdian uhartea duen badia da. Jakin nahi duenak hondarribiar arrantzale zaharrei galde. Txingudi bada, baina han eta ez dakar inongo urik, Bidasoakoa izan ezik, hala ere ez dakit Administaritzaren aldetik nork eta noiz bataiatu dituen "Txingudiko Urak/Agua del Txingudi" eta Irun-Hondarribia aldean, Txingudiko Natur erreserba. Azken hau Jaurlearitzak sortua da eta jakin behar zuten, legez jarria dena beteaz, Euskaltzaindiari galdetzea. Hortarako du erakunde honek Onomastika saila.

Bidasoa, bai estuaria zein ibaia, aintzinatikoa da, betidanik ezagutua, agiriaren arabera. Nork du eskibidea hori aldatzeko? Zer ondorio dakarte arkeologo, historiagile eta gainerakoei beren ikerketak zuzen eramateko? Txingudi badia, Pierre Loti idazlea bizi eta hil zen etxe inguruan hasten da, handik Sokoburu aldera dagoen uhartea igaro arte. Eta Pierre Loti zenak inoiz aipatu ez zuen tokia da; baina bai bere idazkietan maizik, Bidasoa.

Oker erabiltzen den beste era bat zera da, "hondarribiatarra", hiritar jenteeikiko izentzat (jentilizio esan ohi denarentzat), **hondarribiarra** jatorra erabili beharrean. Baina okertze hau aspaldiagokoa dugu, zeren Bordari adiskide zenari galdetzen nionean, dietara erabiltzen zela esaten zidan. Hala ere Jose Angel Fernández de Casadevante arkitektoak, Pio Baroja idazleak, Serapio Mujika artxibariak eta abar, beraien idazkietan beti erabili zuten "(h)ondarribiarra" era jatorra. Adibidez, gaur oraindik nork hartuko luke ontzat "donostiarra" donostiarren ordez?

Gipuzkoa plazan bada "Hertzeko Etxea". Itxuraz euskaraz baina bere funtsean gaqzteleraren erregela jarraituz, non "er" hasten direnak aurretik "h" behar duten. Uste hori ez da zilegi euskaraz eta ezinezko da onartzea. Horrela jarri zituzten Hernani eta Hernialde ere, aurretik beharrezko ez zuten letra erantsiz..

Niregandiko kontseilua da. Euskal Herrian Euskaraz taldekoek, beste hizkuntzetan daudenak kentzen edo borratzen ibiltzea baino, lan hobe beteko luketela norberaren hizkuntzakoan zuzenketak eginaz.